

Ingurumen Buletina

- 1. Klima aldaketa areagotzen ari da, New Yorketik Parisera***
- 2. Kanariar irletan prospekzio petroliferoei buruzko kontsulta***
- 3. Ingurumenarentzat beste mehatxu bat: TTIP***
- 4. Azkenean Pasaiaiko Kanpoko Portua bertan behera geratu da***
- 5. Eskerrik asko guztioi! 103.589 sinadura frackingaren aurka***
- 6. Eta dokumental bat frackinga ez ahazteko...***

1. Klima aldaketa areagotzen ari da, New Yorketik Parisera

Meteorologiaren Munduko Erakundeak (MME) duela gutxi argitaratu dituzten datuak berotegi-efektua duten gasen (BEG, erdaraz GEI) isuriei buruz. Klima aldaketa eragiten duten BEGen kopuruak 2013an berriro marka hautsi du. Atmosferan dagoen CO₂ kontzentrazioa duela 30 urtetik hona ezagutu gabeko abiadan gehitu da. Iaz kontzentrazioa 396 milioiko parte (ppm) izan zen, komunitate zientifikoak galdatzen dituen 350 ppm-tik askoz gorago, eta aro aurreindustrialean (1750 aurretik) zegoen mailaren %142ra iritsi da. CO₂ atmosferan mende luzez geratzen da; ondorioz, iraganeko, oraingo eta etorkizuneko emisioek Lurraren berotzean eragin metatua izango dute. Iaz astirik ez dugu erreakzionatu eta egoera hau geldiarazteko, edo behintzat areagotu ez dadin saiatzeko. MMEaren arabera gero eta premia handiagoa dago klima aldaketaren eta berari eragiten duten zioen aurka nazioarteko ekintza bat egiteko.

Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Panelaren (IPCC) bosgarren txostenak ohartarazten du mende amaiera arte berotze globala bi graduz azpikoa izan dadin BEG isuria murriztu behar dela.

Horregatik ezinbestekoa da epe luzeko ikuskeraz jokatzeko. Zenbait estatu (Costa Rica, Suedia, Suitza) ekonomia helburu horretarantz ari dira eramaten. Baina BEG gehien isurtzen duten herrialdeek ez dituzte abisuok aintzat hartzen.

2014ko azaroan Liman COP20 izango da, Nazio Batuek klima aldaketari buruz urtero egin ohi duten goi-bilera. Liman estatuek negoziatzeko oinarri bat ezarri beharko dute 2015ean Parisen loteslea den akordio bat sinatu ahal dadin; halako zerbaiten zain gaude Kopenhagen izan zen COP15az gero. Haatik, Ban Ki Moon Nazio Batueko idazkari nagusiak berak zalantzan jartzen du Liman oinarri sendorik jartzera iritsiko ote den, eta horregatik salbuespeneko goi-bilera bat deitu du Limakoaren aurretik. Irailaren 23an New Yorken izan den batzarrera ez dira agertu klima aldaketan ardura duten estatu guztiak (emisio handiak dituzten batzuk, esaterako Alemaniak edo Kanadak, ez dute parte hartu). Izan direnek ere ez dute gauza berririk ekarri. Obamak dio isuriak murriztu egin behar direla, baina ez du konpromiso berririk hartu. Frantziak eta Norvegiak iragarri dute estatu pobreak finantzatzeko dituztela klima aldaketa leundu eta berari moldatzeko ahaleginean. Txinak, hau bai da berria, esan

du emisioak gutxituko dituela (ikusteko dago emandako hitza betetzen ote duen, Txina bihurtu baita BEG isuri gehien dituen estatua, AEBen aurretik).

Politikariak beste aldera begira badaude ere, gizarteak entzutera behartzen ditu. Irailaren 21ean New Yorken izan zen manifestazioan 300.000tik gora lagun bildu zen, klima aldaketaren aurka inoiz izan den agerraldirik handiena.

ELAk Limako COP20ko negoziazioa zorrotz behatuko du, hor hartu behar baititu estatu bakoitzak bere konpromisoak, Pariseko COP21ean marko lotesle berri bat izatea posible izan dadin, bere garaian Kyotoko Protokoloa izan zen modukoa. Ez daukagu akordio hau lotuko den esperantza handirik; beraz, mobilizazioari eta borrokari eutsiko diogu zinez har daitezten emisioak murrizteko eta estatu pobreenak finantzatzeko erabakiak (hauek izanik klima aldaketaren biktimarik handienak). Ez dugu onartuko hil ala biziko auziak bigarren mailan kokatzea, enpresa transnazionalak sasi-irtenbideak ezartzeko presio eragiten duten bitartean. Izan ere, sasi-soluzio horiek negozio bat dira eurentzat, eta ez dute klima aldaketa geldiarazten.

2. Kanariar irletan prospekzio petroliferoei

buruzko kontsulta

Uda honetan asko hitz egin da Kanariar Irletako petrolio prospekzioen inguruan. Baina gai hau apaldirik dator. 2001Ean Aznar buru zuen gobernuak Kanariar Irletako uretan prospekzio hauek baimentzen zituen dekretua onartu zuen. Protesta jendetsu ugari izan ziren. Erabakia bertan behera utzi zuen 2004an Epaitegi Gorenak, ingurumen babeserako neurri falta larria zela eta.

Baina egungo PPko gobernuak, Kanariar Irletako instituzioak eta gizartea mesprextatuz, berriro ekin dio. Pasa den martxoaren 18an berriro baimendu zituen prospekzio hauek, Fuerteventura eta Lanzaroteko kostaldetik 60 kilometro eskasera. Prospekzioak baimentzen dizkio Repsol (50%), Woodside Petroleum Ltd. (30%) eta RWE AG (20%) enpresek osaturiko kontsorzioari. Prospekzioen bultzatzaileek egunean 100.000 kupel inguruko produkziora iritsi daitezkeela aurreikusi dute.

Asko dira proiektu honi ezetz esateko arrazoiak: erauzketa jarduera hauek daukaten konponezineko kutsadura arriskua, irlaren ur edangarri horniduran jarduera hauek izan ditzaketen ondorioak larriak, kanariar itsas ingurune aberatsa hondatzea, irletarako hain

garrantzitsuak diren turismo eta arrantza jarduerekin bateraezintasuna, herritarren kontrako borondatea, kanariar irletako biztanleen burujabetza galera, eta beraien instituzioei eginiko mespretxua. Arrazoi guzti hauengatik Kanariar Irlak ezetz esan diete prospekzio hauei.

Baina Kanariar herria ez da protestan bakarrik geratu. Irletako Presidenteak esan berri du prospekzioen inguruan kontsulta bat egiteko prozesu administratiboak aurreratuko dituela. Kanariar gobernuak kontsulta egin nahi du herritarren parte hartzerako legean oinarrituz. 20. artikuluan zera dio lege honek “gobernuak, bere presidentearen eskutik, erkidegoari dagozkion interes orokorreko gaietan herritarrek duten iritzia jaso ahal izango du sondeo, inkesta edo herritarren parte hartzerako beste edozein tresna erabiliz”.

Rajoyren gobernuari alde guztietan irteten zaizkio kontsultak. Ikusiko dugu kontsulta honi zein erantzun ematen dion, baina susmoa dugu beste ariketa demokratiko batzuk beste gustatuko zaiola.

3. Ingurumenarentzat beste mehatxu bat:

TTIP

Europar Batasuna (EB) eta Estatu

Batuen (EEBB) artean negoziatzen ari diren merkataritza akordio garrantzitsuak, Merkataritza eta Inbertsiorako Asoziazio Transatlantikoa (ingelesez TTIP), gobernuek komunitateak, herritarrak eta ingurumena babesteko duten ahalmena mehatxatzen du.

Akordio honek ingurumenean eragina duten sektore eta gai ugari jasotzen ditu. Esaterako elikagaien segurtasuna, produktu transgenikoak, produktu kimiko toxikoak edo oso kutsatzaileak diren erregaiak. Multinazionalak ingurumen irizpideak eta irizpide sozialak indargabetu nahi dituzte, batez ere elikadura, nekazaritza produktu kimiko eta energiari dagokionean. Guztiz sekretuak eta opakuek diren negoziatioek ingurumena eta osasuna babesten duten lege ugari bertan behera geratzeko saiakera dira, beti ere enpresa transnazional handien eta beraien irabazien mesederako. Enpresa asko presio egiten ari dira akordioa beraien interesetara egokitzeko, adibidez, Kanada eta EEBBko area bituminoso kaltegarrietatik ateratako petrolioa inportatzeko trabak kentzeko, edo enpresa estatubatuarrek transgenikoak EBra esportatzeko trabak jartzen dituzten kontsumitzailearen babeserako neurrien aurka.

Negoizatioek inbertsio korporatiboak

babesten dituzte herritarron eta ingurumenaren babesaren gainera, eta enpresei "galdutako irabazi" kontzeptuarekin kalte ordainak eskatzea ahalbideratuko die gobernu baten erabakiak beraien irabazietan eraginik badu. Honek baliabide naturalak frackinga bezalako teknika arriskutsu bidez ustiatu nahi duten enpresei, edo ingurumen eta osasun babeserako REACH edo "Prebentzio Printzipio" bezalako araudien eraginpean dauden jardueri egiten die mesede.

EBk, berriro ere, guztion onurarako duen interes eza eta enpresa transnationalei eta hauen irabaziei egiten dien defentsa sutua erakutsi du. TTIPen inguruan EBk duen iritzia argia da, eta hitzez hitz irakurri daiteke Europar Komisioak eginiko inpaktu ebaluazioan: "ingurumenean izango duen eragin globala eskasa izango da ziurrenik. Liberalizazio maila altua izango den arren, CO₂ emisio globalen hazkunde oso mugatua aurreikusten da. Gainera, TTIPen beste edozein eragin kolateral negatibo -hondakin gehiago sortzea, biodibertsitatea gutxitzea edo baliabide natural gehiago erabiltzea-guztiz konpentsatuko litzateke ingurumen ondasun eta zerbitzuen merkataritzaren hazkundeak ekarriko lituzkeen irabaziekin.

Ezin da argiago esan. Gure ongizatea, osasuna eta ingurumena gehien ordaintzen duenari saltzen diote.

4. Azkenean Pasaiaiko Kanpoko Portua bertan behera geratu da

2014ko irailaren 25ean, azkenean, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak 15 urtean zehar defendatu duen Pasaiaiko Kanpoko Portuaren proiektua bertan behera utzi du. Proiektu honek hasieratik izan du gizartearen oposizioa, baina hau sekula ez da izan nahikoa kanpoko portuaren proiektua birpentsatzeko. Azkenean pisu gehiago izan du finantziario ezak eta portuaren lan karga eskasak. Arrazoi hauek hasieratik ziren begi bistakoak baina portuko administrazio kontseiluaren gehiengoak beste aldera begiratzen zuen eta interes propioak defendatzen jarraitzen zuten, portuaren eta inguruan bizi ziren pertsonen interesak defendatu beharrean.

Baina gaur, esfortzu eta borroka askoren ondoren, esan dezakegu irabazi dugula, inoiz zentzurik izan ez duen eta ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik eta ingurumenarentzat astakeria zen azpiegitura baten eraikuntza geldiarazi dugula.

ELAk hasieratik izan du kanpoko portuaren kontrako jarrera, kontrako

alegazioak aurkeztu ditugu, informatu egin dugu eta mobilizatu egin gara. Zorionak borrokan egin duzuen guztioi!

5. Eskerrik asko guztioi! 103.589 sinadura frackingaren aurka

Pasa den irailaren 13an, Fracking Ez Araba plataformak, EAEn frackinga debekatzeko Herri Ekimen Legegile bat bultzatzeko jaso dituen sinadurak entregatu zituen. Legeak 30.000 sinadura eskatzen dituen arren, plataformak 60.000 jasotzeko helburua jarri zuen. Sinadura bilketa egiteko EAE osoan zehar gure indarra jarri dugun guztioi esker, 103.589 sinadura bildu ditugu!

Fracking Ez Arabakoen ustetan "HELak izango duen ibilbideaz haratago, Eusko Jaurlaritzak eta alderdi politikoek erronka garrantzitsua dute, euskal gizartean frackingaren aurka dagoen sentimenduari kasu egitea".

Horrenbeste pertsona bolondresak jaso duten sinadura kopuru izugarriak balio handia dauka, eta oso garrantzitsua izango da. Hilabete guzti hauetan frackingaren aurka

egon den mobilizazio izugarriak EAEN teknika arriskutsu hau geldiarazteko balio behar du. Plataformako kideek ongi esan zuten bezala "gizarteak hitz egin du eta orain politikariek entzun egin behar dute".

ELAk ere parte hartu du kanpaina honetan hitzaldiak antolatuz, mobilizazioetan parte hartuz, frackinga eta HELaren inguruan informatuz, eta lan egin du sinadura bilketan ere. Eta horregatik eskertu eta zoriondu nahi zaituztegu zuen indarrak honetan jarri dituzuen militante guztiok. Osasuna eta ingurumenarentzat hain kaltegarria den teknika hau debekatzeko lanean jarraituko dugu. Fracking ez! Ez hemen ez inon!

6. Eta frackinga ez ahazteko...

Eta zertaz ari garen ez ahazteko eta borroka sinadura bilketan bukatzen ez delako, energia baliabideen eskasiari buruz eta frackingaren ondorioei buruz aritzen den eta Euskal Herrian egin den dokumental hau ikustera gonbidatu nahi zaituztegu. Klikatu [hemen](#) dokumentala ikusteko.